

# Molusku bibalbioak: ustiapeneko arrisku mikrobiologikoak kudeatzeko gida

**Gida honen helburua da kontsumorako moluskuak (bibalbio biziak edo gordinak) hazteko eremuak ezartzeko eta kontrolatzeko jarraibideak ezartzea, bereziki arrisku mikrobiologikoak kudeatzeari begira.**

FAO/OMEren *Codex Alimentarius*-en Batzordeak argitaratu du eta jardunbide egokiak erabiltzen dituzten zenbait programen esperientziak biltzen ditu, Codex-eko Jardunbideen Kodeko eskakizunei jarraitzen dietenak.

Molusku bibalbioen saneamendu-programak garatzeko, ezartzeko eta aplikatzeko ardura duten agintaritzei zuzenduta dago nagusiki. Gidak nabarmentzen du programa hori ezartzeko garrantzitsua dela bazkide guztiek elkarlanean jardutea eta denen artean beharrezko akordioetara iristea. Bazkide horiek dira, besteak beste, tokiko agintaritzak, agentzia arautzaileak eta kontrol-laboretegiak.

---

Technical Guidance for the Development of the Growing Area Aspects of Bivalve Mollusc Sanitation Programmes  
(<http://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/275518/9789241514750-eng.pdf?ua=1>)  
**ELIKA** . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .  
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)